

## *Iholdi*

Aurkibidea

### **Udalerria: Iholdi**

#### **Sarrera**



Arberoa eskualdean kokaturik dago Iholdi. Armendaritze, Heleta, Irisarri, Landibarre eta Suhuskune ditu udalerrri mugakideak. Udalerriko ekonomiaren oinarria laborantza da.

- **Biztanleak:** 554
- **Euskaldunak:** %21,12

#### **Ahotsak.eus-eko datu orokorrak**

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **12**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **12**

## Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- IKER taldea

## Hizlariak

**IHO-001 Hizlari ezezaguna (1969)**

**IHO-002 Hizlari ezezaguna (1930)**

**Jan Battitt Migelgorri (1919)**



Iholdin sortua laborari etxe ttipi batean 1919an. Lau anai-arreba ziren. Etxean senide asko eta bera izan zen lehenbizikoa lanera irteten 12 urterekin. Gerora, esneketaria izandu da. Soldadutza egin ostean Donaixtira joan zen; bertan ezkondu eta bi alaba izan zituen.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Iholdi sorteria (IHO-003/001)

Iholdin sortu zen eta gaur egun ere usu joaten da bere lagunak bisitatzera.

### 2. Morroi lanetan txikitatik (IHO-003/002)

Etxean jende asko zegoen eta 12 urterekin Armendaritzera joan behar izan zen morroi. Hango lanak akabatu eta Iholdiko beste biktoe baten etxera joan zen. 16 urtetan Donazaharrera joan zen eta gero berriz ere etxean egon zen soldado joan arte.

### 3. Bigarren mundu gerra I (IHO-003/003)

Frantzia iparraldean hasiak ziren gatazkak, eta eurak Petain-ek antolatu chantiers de jeunesse parte hartzen hasi zen zona librean, armarik gabe beste zeregin batzuetan. Lartzabale eta Arnegiko lerrotik mendebaldera zen zona okupatua. Gers, Italia, Alpeak, Cannes ondoan eta Alemanian ere izana da gerra kari. Autoa gidatzen ere han ikasi zuen.

### 4. Bigarren mundu gerra II (IHO-003/004)

Zorionez ez du jendea hiltzen ikusi, beste zeregin batzuetan ibili baitzen. Mundu pixka bat ezagutzeko balio izan zion.

## **5. Esnetegia aitzaki Tunisiara I (IHO-003/005)**

Gerra amaitu zelarik, esnetegian (leterian) sartu zen. Garai hartan ia herri bakoitzean bazen esnetegi bat. Donibane Garazin hasi zen lehenengo eta handik Tunisiara joan zen. Han hatsarrean ez zen ezer ere baina esnetegiak egiten joan ziren emeki-emeki. Alor handiak zeuden han, dena ordokia baitzen. Nahiko leku beroa zen. Inguruko agintaria ere etortzen zen beren esnetegiko "kallat"-a jatera. 4 urte egin zituen bertan.

## **6. Esnetegia aitzaki Tunisiara II (IHO-003/006)**

Ezkontzeko gogoia ere bazuen eta bueltan etorri zen Euskal Herrira. Ez zen oso pozik etorri, oso gustora baitzegoen han. Mundu guztiko jendea zegoen bertan: arabeak, italiarrak, juduak... Rikota (gaztanbera??) maite zuten. Galsoroak ziren nagusi, basamortu gutxi.

## **7. Euskal Herrira itzuli eta familia ukan (IHO-003/007)**

Iholdira itzuli zen. Hautatua zuen neska, Donaixtiko esnetegian lanean ibili zelarik. Esposatu eta bi alaba izan zituzten. Duela 10 urte hil zaio emaztea, baina alabak ondoan bizi ditu. Donibane Garaziko esnetegian jarraitu zuen

## **8. Bigarren mundu gerra III (IHO-003/008)**

Inguru hartan ez zen makurrik izan, bai ordea Maule inguruan.

## **9. Parajeek jasan duten aldaketa (IHO-003/009)**

Ez dira inguruak asko aldatu, mendi-bide berriak salbu. Laborariak pixka bat handitu dira, hori bai.

## **10. Gaztainondoak (IHO-003/010)**

Gaztainondo ugari zen, baina eritasunarekin guztiak galdu ziren. Gaztainetatik diru dezente ateratzen zen.

## **11. Lehengo elurteak (IHO-003/012)**

Hotz gehixeago egiten zuen. Urrian ere izotza egiten zuen. 1956an izan zen biziki negu gogorra. Hilabete iraun zuen orduko hotzaldiak. Zortea dute inguruan berotzeko egurra badutelako.

## **12. Lehengo eta oraingo bizia (IHO-003/013)**

Lana gogorragoa bazen ere, jendea ere ondo bizi zen orduan. Giro gehiago zegoen orduan. Alta, gaur egun, indibidualismo gehiago dago.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-06-08*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com